


HEZKUNTZA PROIEKTUA



HaUrreSkolak

---

HAURRESKOLAREN  
HEZKUNTZA PROIEKTUA



## HAURRESKOLAREN HEZKUNTZA PROIEKTUA

### AURKIBIDEA

#### 1. AURKEZPENA

#### 2. ARAUDIA: HAUR HEZKUNTZAKO CURRICULUMA (237/2015 DEKRETUA)

##### 2.1 HAUR HEZKUNTZAKO KONPETENTZIAK

#### 3. ALDERDI METODOLOGIKOAK HAURRESKOLAK PARTZUERGOAN

##### 3.1 SARRERA

##### 3.2 MARKO LEGALA

###### 3.2.1 NORTASUN IKURRAK

###### 3.2.2 DEKRETUAK ETA AGINDUAK

###### 3.2.3 HEZKUNTZA PRINTZIBIOAK

###### 3.2.4 HAURRESKOLAK PARTZUERGOAREN HELBURU OROKORRAK

##### 3.3 ANIZTASUNA

##### 3.4 HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK

##### 3.5 HIZKUNTZAREN TRATAERA

##### 3.6 HEZKIDETZA HAURRESKOLAK PARTZUERGOAN

#### 4. ....HAURRESKOLAREN HEZKUNTZA PROIEKTUA

##### 4.1 TESTUINGURU FISIKO ETA SOZIALA

##### 4.2 OINARRI TEORIKOA, HELBURUAK ETA EDUKIAK

##### 4.3 ARLO PEDAGOGIKO ETA METODOLOGIKOAK

###### 4.3.1 HEZKUNTZA ELKARRERAGINEN ANTOLAKETA

###### 4.3.2 ESPAZIOA, DENBORA ETA TALDEAK

###### 4.3.3 OBJEKTU ETA MATERIALEN AUKERAKETA ETA ANTOLAKETA

###### 4.3.4 EBALUAZIOA ETA HAURRAREN JARRAIPENA

##### 4.4 BIZITZA HAURRESKOLAN

###### - EGOKITZAPEN ALDIA

###### - HARRERA/AGURRA

###### - OTORDUAK

###### - HIGIENEA

###### - ATSEDENA/LOA

###### - JARDUERA AUTONOMOA/JOLASA

###### - APARTEKO JARDUERAK: TOKIAN TOKIKO ADIERAZPEN KULTURALAK, IRTEERAK, TAILERRAK, MOTRIZITATEA...

#### 5. ERANSKINAK



## 1. AURKEZPENA

Haur Hezkuntza Hezkuntza Sistemaren lehen atala da. Ez da derrigorrezkoa, eta 0-6 urte bitarteko hurrei zuzendua da. Guk 0-3 urte arteko adin tarteari erreparatuko diogu.

**Haur Hezkuntzaren helburu nagusia haurraren garapen osoa bultzatzea da. Horretarako, ahalmen guztien garapenaz arduratuko da, hau da, ahalmen fisikoez, afektiboez, intelektualez eta sozialez.**

Eta honetan oinarrizko konpetentzien lorpenerako oinarriak garatzen eta finkatzen dira, hau da, era eraginkor batean eremu guztietako arazoak eta bizitzaren egoerak ebazteko behar direnak.

**Haurraren bizitzaren etapa garrantzitsuenetarikoa da.** Izan ere, haurraren bizitzaren lehenengo uneetan ezartzen dira garapenerako oinarriak: neuronen egiturak sortzen dira, indibidualizazio eta sozializazio prozesuak gertatzen dira, fisikoki hazten dira, eta garapen psikomotorra, intelektuala eta zentzumenezkoa gertatzen dira. Horri guztiari esker, harremanak garatzen dituzte ingurunearekin eta besteekin. Hizkuntza bereganatzen eta garatzen hasten dira. Horren bidez, haurraren nortasuna eratuz joango da, eta etorkizunean gauzatuko dituen gizarte interakzioen eta interakzio intelektualen oinarriak ezarriko dira, hauek direlarik alderdi garrantzitsuenak: gaitasun motorrak, gaitasun kognitiboak, autoestimua, gizarteratze gaitasunak, hizkuntza gaitasunak eta harreman pertsonalak.

Eskuetan duzuen dokumentu hau 3 ataletan banatuta dago.

1. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuak argitaratutako 237/2015 Dekretuaren azalpena, non **Haur Hezkuntzako Curriculumaren** zehaztapenak azaltzen diren: "*Dekretu honen xedea da Haur Hezkuntzari dagokion berezko curriculumaren ezartzea, eta berez nola ezarri, ebaluatu eta garatu behar den arautzea*". Kontuan izan behar dugu **dekretu hau 0-6 urte bitarteko hurrei dagoela zuzenduta, ez 1. zikloko hurrei soilik.**
2. **Haurreskolak Partzuergoaren hainbat alderdi metodologiko.** Bertan, kontuan hartu beharreko hainbat alderdi azaltzen dira: marko legala, aniztasuna, hezkuntza premia bereziak, hizkuntzaren trataera eta hezkidetzak Haurreskolak Partzuergoan.

**Bi atal horiek kontuan izan beharko ditu haurreskola bakoitzak bere Hezkuntza Proiektua egiterakoan.**



- 3. Haurreskola bakoitzaren Hezkuntza Proiektua.** Lehenengo bi atalak oinarri izanda, atal honek hausnarketa sakonak eskatzen ditu, haurreskolaren nortasuna, marko pedagogikoa, erreferentzia teorikoetan oinarritutako esku-hartzeak, antolakuntza eta beste gai batzuk bertan azalduko baitira.



## **2. ARAUDIA: HAUR HEZKUNTZAKO CURRICULUMA (237/2015 DEKRETUA)<sup>1</sup>**

237/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculuma zehazten duena eranskinetan egon arren, atal honetan premiazkoak diren Haur Hezkuntzaren konpetentziak azaltzen dira.

### **2.1 HAUR HEZKUNTZAKO KONPETENTZIAK**

**Kontuan izan behar da bizitza osorako konpetentziak direla**

#### **Oinarrizko zehar konpetentziak (edo orokorrak)**

**Bizitzako esparru eta egoera guztietan zailtasun egoerak eraginkortasunez ebazteko behar diren konpetentziak dira, bai esperientzia eremuetan, bai eguneroko bizitzako gainerako egoeretan.** Esperientzia eremu guztietan orotara egindako lanaren bidez sustatu eta indartu behar dira oinarrizko zehar konpetentziak, eta bizitzako esparru eta egoera guztietan integratu edo barneratuz eskuratzen eta erabiltzen dira.

Esperientzia eremuetan eta haien eguneroko bizitzako gainerako egoeretan integratu edo uztartu behar dituzte hurrek zehar konpetentziei dagozkien prozedurak eta jarrerak. Horrela jokatuta, oinarrizko zehar konpetentzia hauek landuko dituzte hurrek:

- **Norbera izaten ikasteko konpetentzia.**
- **Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.**
- **Elkarbizitzarako konpetentzia.**
- **Ekimen eta espiritu ekintzailerako konpetentzia.**
- **Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia.**

<sup>1</sup> Eranskina: Haur Hezkuntzako Curriculumua (237/2015 Dekretua)



## Oinarrizko kompetentzia espezifikoak

Hezkuntza ikuspegiak haurren bizipenei erreparatzen die Haur Hezkuntzan eta, ondorioz, esperientzia eremutan egituratzen dira hezkuntza proposamenak. Ikuspegi horren baitan, eta haurren garapen osoa lantzeko xedea hartuta, honako hiru alderdi hauek hartu behar dituzte kontuan hezkuntzaren plangintzak eta jardunak: haurraren jarduera eta esperientziazioa, hezitzaileak haurraren ekintzak «entzutea» eta haien gaineko gogoeta egitea, eta ekintzen hezkuntza testuingurua.

Oinarrizko kompetentzia espezifiko horiek lantzen dituzte haurrek «Nortasunaren eraikuntza eta ingurune fisiko eta sozialaren ezagutza» eta «Nortasunaren eraikuntza eta komunikazioa eta adierazpena» esperientzia eremuen bidez:

- **Kompetentzia motorra.**
- **Matematikarako kompetentzia.**
- **Hizkuntza eta literatura komunikaziorako kompetentzia.**
- **Kompetentzia sozial eta zibikoa.**
- **Zientziarako eta teknologiarako kompetentzia.**
- **Arterako kompetentzia.**



### 3. ALDERDI METODOLOGIKOAK HAURRESKOLAK PARTZUERGOAN

#### 3.1 SARRERA

Haurreskolak Partzuergoaren Oinarrizko Hezkuntza Proiektua duzue honako hau. Berau eta Haur Hezkuntzako curriculumak (237/2015 Dekretua) abiapuntutzat hartuta, haurreskola bakoitzak bere izaera propioa finkatzeko erabakiak eta jarduerak hartu eta egokituko ditu, bere Hezkuntza Proiektua osatzeko.

Erakundearen eraketa agirian adierazten denez, Haurreskolak Partzuergoaren helburuek bi xede nagusi dituzte: batetik, haurreskoletan izena ematen duten haurrei hezkuntza arreta osoa ematea, eta, bestetik, familiei gizarte arreta eskaintzea, batik bat familia bizitza eta lana bateratzeari dagokionez.

Hezkuntza alorrari dagokionez, Haurreskolak Partzuergoak haurren garapen osoa sustatu nahi du, familiekin batera. Aintzat hartuta adin txikikoen eskubideen errespetua, ongizate biopsikosoziala, ahalmen afektiboak eta zentzumenen, motor/manipulatibo, kognitiboen, harremanen eta sozializazioaren garapena bitartekariak izango direlarik.

Arestian aipatu den bezala, **haurreskola bakoitzak, Haurreskolak Partzuergoko markoa eta EAEko Haur Hezkuntzako curriculumak markatutakoa errespetatuz, bere Hezkuntza Proiektua osatuko du, hezitzaile taldeak hartutako erabakiekin.**

Hezitzaileek, agiri hauen bidez, laguntza izango dute beraien haurreskolaren hezkuntza planteamenduei buruzko erabaki zehatzak eta funtsezkoak hartzeko, planteamendu horiek erabiliko baitituzte hezkuntza aldi horri dagozkion berezko gaitasunak eskuratzeko eta horien garapena ahalbidetzeko. Horretarako, adin horretako haurren garapen mailari eta berezko premiei egokitutako testuinguruak antolatuko dira, guztiak kontuan hartuta. **Ezin da hezkuntza jardueren eta zaintza jardueren arteko dikotomiarik ezarri; izan ere, bi ardatz horiek elkarreraginean jarduten dute haurren garapen osoan.**

Konpromisodun lana lortzeko, hartutako erabakiak jasoko ditu haurreskola bakoitzak duen Hezkuntza Proiektuak. Lan hori parte hartzean, hausnarketan, kritikan eta adostasunean oinarrituko da.

Proiektu honek adin honetako haurrekin lan egiten duten pertsonak profesionalizatzeko bidea zabaltzen du. **Haurren prestakuntza osoa erdietsi**





**nahi duten haurreskolek profesional trebatuak izan behar dituzte, eta profesional horiek iturri teorikoetan oinarritu beharko dituzte beren erabakiak eta ekintza praktikoak.**

Hemen aurkezten da Haurreskolak Partzuergoaren Hezkuntza Proiektua, adierazitako guztia betetzen laguntzeko. Hori lortzeko, haurreskola bakoitzak hartu beharreko erabakiak zehazten eta oinarritzen ditu.

Hauek izango dira **erabaki eta idatzi beharrekoak:**

- **Testuinguru fisiko eta soziala.**
- **Oinarri teorikoa, helburu zehatzak** eta helburu zehatz horiek lortzeko **edukiak.**
- **Arlo pedagogiko eta metodologikoak:**
  - **Hezkuntza elkarreraginen antolaketa.** Pertsonen arteko harremanak (haurra, haurreskola/hezitzaile, familia, kanpo eragileak).
  - **Espazioa, denbora eta taldeak.** Helburuak lortzeko, aurrera egitearekin batera, beharrezkoa da espazioak diseinatzea, eguneko denborak banatzea eta taldeak osatzea, haur bakoitzaren garapen erritmo indibiduala errespetatuz.
  - **Objektu eta materialaren aukeraketa eta antolaketa.** Zenbait objektu erabiliko dira haurreskola bakoitzean zehaztutako helburuak lortzeko eta proposatutako edukiak lantzeko. Objektu horiek oinarri psikopedagogikoetan oinarrituz aukeratu eta antolatuko dira, eta haurren garapen prozesua ahalbidetuko dute.
  - **Ebaluazioa eta haurraren jarraipena.** Haurreskolako egunerokotasunean parte hartzen duten pertsona, antolaketa, baliabide edo dinamika guztien informazioa jaso, antolatu eta ebaluatu. Honek haurraren garapen prozesuaren jarraipena egiteko baliabideak emango dizkigu.
  - **Bizitza haurreskolan:**
    - Egokitzapen aldia
    - Harrera/Agurra
    - Otorduak



- Higienea
- Atsedena/Loa.
- Jarduera autonomia/Jolasa.
- Aparteko jarduerak: tokian tokiko adierazpen kulturalak, irteerak, tailerrak, motrizitatea,...

**Hartutako erabakiak zilegitzeko eta oinarritzeko, Haurreskolak Partzuergoaren 14 Hezkuntza Printzipio orokorretan (3.2.3. puntuan azaltzen dira) jasotako hezkuntza teoriak baliatuko da.**

## 3.2. MARKO LEGALA

### 3.2.1. NORTASUN IKURRAK

Haurreskolek nortasun ikur propioak izatea onartzen eta proposatzen du Haurreskolak Partzuergoak. Nortasun ikur horiek ezagutaraziko dituzte haurreskolak, eta ikur horiek, oinarrian, balio hauek izango dituzte:

- Pluralista eta libre**, aniztasunari irekia, eta errespetuz, tolerantziaz eta aberasgarritzat hartzen dituen desberdintasunak (etnikoak, kulturalak, erlijiozkoak, sozialak, fisikoak, zentzumenezkoak, motrizitatekoak...)
- Inklusiboa eta konpentsatzailea**, pertsonen arteko berdintasunari eta pertsonen errealizazio aukerei begira dagoena, edozein direla ere horien baldintza pertsonal, sozial eta sexualak; gaitasun, arraza edo gizarte jatorria, eta, betiere, gizarte estereotipoak ezabatzen saiatuko dena.
- Laikoa**, haurreskolak ez-konfesionalak izatearen alde gaude, pertsona guztien sinesmenak errespetatzen baititugu.
- Kritikoa**, herritar parte hartzaile eta arduratsuak lortzeko hezkuntza emango duena, elkartasunean, tolerantzian eta aukera berdintasunean oinarritutakoa; balio demokratikoetan hezteko, alegia.
- Euskalduna**. Haurreskolak Partzuergoak euskara erabili nahi du ikasteko eta harremanak ezartzeko, eta, horretarako, beharrezkoak diren bitartekoak eta baliabideak moldatuko ditu.
- Demokratikoa**, esku-hartze pedagogikoko eta funtzionamenduko bideak ezartzen dituen, hezkuntza komunitateko kide guztientzat.



### 3.2.2. DEKRETUAK ETA AGINDUAK

1. 237/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculumaz zehazten duena.
2. 297/2002 DEKRETUA, abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko haurren Haurreskolak 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan arautzen dituena.
3. 215/2004 DEKRETUA, azaroaren 16koa, 0 eta 3 urte bitarteko umeentzako haurreskolek bete beharreko gutxieneko baldintzak ezarri, eta abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuaren artikuluko batzuk indarrean iraunarazten dituena.
4. AGINDUA, 2008ko apirilaren 10ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena. Honen bidez, 0 eta 3 urte bitarteko umeentzako haurreskolek bete beharreko gutxieneko baldintzak ezartzen dituen azaroaren 16ko 215/2004 Dekretuaren azken xedapenetako lehenengoa garatzen da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko umeen haurreskolak 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan arautu zituen Dekretuaren artikuluko batzuk indarrean iraunarazten dira.

### 3.2.3. HEZKUNTZA PRINTZIBIOAK

**Hezkuntza Printzipioak ideia, balio eta iturri teorikoz osatutako irizpideak dira.** Horiek dira haurreskolen eguneroko egitekoen euskarri, hezkuntza erabaki guztien planifikazioa, gauzatzea eta balioztatzea gidatzen baitute.

Printzipio hauek hainbat teorietan dute iturburua: nortasun osoa nola eraiki argitzen duten ikerketetatik sortu dira; ikasteko eta ingurune fisikoan eta gizarte ingurunean modu eraikitzailean esku hartzeko gai izango den nortasuna nola eraiki adierazten duten ikerketetatik, alegia.

Aitortzen dugu garapena banakako prozesu errepikaezina dela eta prozesuen elkarreraginen bidez eraikitzen dela. Prozesu hauek aldi berean gertatzen dira, elkarreragin mekanismo konplexuei esker, eta zerikusia handia dute haur bakoitzaren ingurune fisikoarekin eta gizarte eremuarekin.

Haurrek "Ni" osasuntsua gara dezaten, beharrezkoa da heziketak eta esku hartzeak haurren ikasteko eta munduari aurre egiteko modua aintzat hartzea.



0-3 urte bitarteko haurren hezkuntza aldiak ezaugarri propioak ditu. Haurreskolak Partzuergoko hezkuntza proiektuko planteamenduaren helburua haurreskoletako haurren gaitasunen aberastasuna onartzea da eta, horrekin batera, hezkuntzako esku hartzearen kalitatea eta teoriaren eta praktikaren arteko koherentzia balioestea, gizartearen eskariei eta haurren eskubideei duintasunez erantzuteko.

**Hezkuntza Proiektua egiteko garaian, hezitzaile taldeak hartzen dituen erabakiak zilegitzeko eta oinarritzeko, Haurreskolak Partzuergoaren Hezkuntza Printzipio orokor hauetan jasotako hezkuntza teoriak baliatuko da:**

1. **Garapena prozesu pertsonala da**, norberaren ezaugarri zein egoerak eta inguruneak baldintzatua
2. **Guztiok ezberdinak gara**. Haur bakoitzak bere erritmoa du eta errespetatua izango da.
3. Egunerokotasunean **hezkidetzan** heziko da. Aurreiritziak eta estereotipo baztertzaileak kanpo geldituko dira.
4. **Ez dugu dena modu berean eta aldi berean barneratzen**. Garapen intelektualak, afektiboak eta sozialak prozesu horretan eragina izango dute. Haurraren garapena globala da eta alderdi guztiak batera eta elkarri lotuak eraikitzen dira.
5. Haurra, menpekotasun handia badu ere, gaitasunak dituen **izaki aktiboa da**.
6. **Bizitzako esperientziak eta** horiek sortzen dituzten **emozioak** garapenaren oinarri dira, eta pertsonaren osotasunari eragiten diote: arlo afektiboari, harremanei eta ezagutzei.
7. Hazteko eta ikasteko **onarpena, segurtasuna, konfiantza eta egonkortasuna** behar dira.
8. Erabiliko den hezkuntza **euskara** izango da, betiere haurren eta familien hezkuntza onartuta eta errespetatuta.
9. Hezitzaileen **esku hartzea koherentea** izango da, eta haurraren ongizatea lehenetsiko da:
  - Hezitzaile taldearen esku hartzea koherentea izateko, adostua eta bateratua izango da.
  - Hezitzaile taldeak familiekin errespetuzko komunikazio eta harreman bideak eraikiko ditu.
10. **Hezitzailearen rola funtsezkoa da. Behatuz eta entzunez**, haur bakoitzaren ezagutzan sakonduko du hezitzaileak, haurrak ingurune fisikoarekiko eta sozialarekiko izan ditzakeen harremanak zainduta.
11. **Hezkuntza proposamenak irizpide psikopedagogikoetan oinarrituko dira.**



12. Hezkuntza proposamenek, haurrek **mundua ikertzeko, ezagutzeko eta ulertzeko** duten **premia** nahiz haur bakoitzak dituen inizatiba eta interesak errespetatuko dituzte.
13. Haurren **garapen globala bermatzeko**, arlo motorrean nahiz intelektualean hazteko, askatasunez mugitzeko nahiz manipulaziorako eta esperimenezko **proposamen aberatsak eta doituak eskaini behar zaizkio**.
14. Hezkuntza proposamenak **iraunkorrak, etengabeak, askotarikoak eta haurren garapen uneari egokituak** izango dira.

### 3.2.4. HAURRESKOLAK PARTZUERGOAREN HELBURU OROKORRAK

**Haur Hezkuntzako lehen zikloan daudenean, hau da, 0-3 adin tarteari dagokion zikloan daudenean, gorputza da mundua arakatzeko eta esperientziak izateko abiapuntua.** Adin horietan eratzen dira errealitatea ulertzeko oinarriak, eta eratze prozesu horretan, espazioak, denborak, kausalitateak, erritmo biologikoak, plazerrak, minak eta beste aldagai ugari osatutako erreferentzia esparrua eraikitzen dira. Prozesu horretan, bere nortasun soziala deskubritzen du haurrak, eta komunikaziorako modu asko garatzen ditu.

Garrantzitsua da ere zaintza, afektu eta komunikazioko jarraibideen ildotik deskubritzea norberaren nortasun soziala, eboluzio egokitzapenak biltzen eta jarraibide kultural konkretuak islatzen diren bitartean.

Hau dena kontuan izanda eta Haur Hezkuntzako dekretua oinarritzat hartuta, honako hauek dira **Haurreskolak Partzuergoko helburu orokorrak**:

#### «NORTASUNAREN ERAIKUNTZA ETA INGURUNE FISIKOAREN ETA SOZIALAREN EZAGUERA» eremuko helburuak:

1. Norbera pertsona berezia dela ohartzeko eta bere buruarekiko irudi positiboa **eraikitze**ko, bere burua identifikatzen, ezagutzen eta besteengandik bereizten hastea.
2. Zentzumenen bitartez sentsazio desberdinak sentitzea, NIAren eraikuntzan dituen ezaugarriak eta ahalmenak identifikatzea eta tonua, oreka eta koordinazioa testuinguruaren ezaugarrietara doitzea, nor bere buruaren irudi positiboa **eraikitze**ko.



3. Ongizate fisiko eta emozionala lortzeko eta eguneroko bizitzako egoerez **gozatzeko** beharrezkoak diren konpetentziak (erritmo biologikoak, elikadura, garbitasuna, atsedena, arakatzeko jarduerak,...) garatzea eta erreferentziatzeko helduen esku hartzea onartzea segurtasun afektiboa osasuntsua **eraikitzeko**.
4. Norberaren interesetatik abiatutako ekintzak, jarduerak, esperientziak ... planifikatzea eta burutzea bere buruarekiko konfiantza sentimendua **garatzeko**; saihestezinezko frustrazio txikiak kudeatzeko estrategiak eraikitzen hastea eta esanguratsu dituen pertsonengan laguntza bilatzea.
5. Haurrak **autoerregulazio** gaitasuna garatzea; beste hurrekin eta inguruko helduekin errespetuzko harremanen eraikuntza bermatzea.
6. Ingurune fisiko eta soziala **behatzeko, aztertze** eta **ezagutzeko** interesa izatea, segurtasunez eta garapen uneari dagokion iniziatibaz jardutea.
7. Eskura dituen elementu anitzen, bai naturakoak bai eraikitako elementuen ezaugarriak aztertzea, behatzea, esperimendatzea, bere ekintzak hauengan duen eragina bizituz eta zenbaitetan hauen portaera eraldatzeko aukeraz **jabetzeko**.
8. Elementu eta bildumek zer ezaugarri dituzten aztertzea; multzokatzea, sailkatzea, ordenatzea, erlazioak ezartzea, pentsamendu zientifikoa **garatzeko**.
9. Hurbileko gizarte taldeko partaide denaren sentimendua eraikitzen hastea, konfiantza eta errespetuzko jarrerak **garatzeko**.
10. Arian-arian gizartean **jokatzeko** oinarriko gizarte arauak, egiteko moduak, ohiturak ... barneratzen hastea eta errespetuz jokatzen hastea.
11. Haurraren ingurune hurbilean dauden tradizio eta ohiturak behatzea, hauek ezagutzea, hauetan prest dagoenean parte hartzen **hasteko** eta nortasun zeinu diren aldetik **balioesteko**.



**«NORTASUNAREN ERAIKUNTZA ETA KOMUNIKAZIOA ETA  
ADIERAZPENA» eremuko helburuak:**

1. **Komunikatzeko** asmoz, nor bere emozio eta sentimenduak identifikatzen hastea eta hauek adieraztea.
2. Hizkuntza askotarikoen komunikazio tresnak **eskuratzeko** bidea egiten hastea, eta tresna horiez gozatzea norberaren egoera pertsonal, fisiko eta sozialeko beharrianak, sentimenduak eta bizipenak adierazi eta **azaltzeko**.
3. Ahozko hizkuntza arian-arian erabiltzen hastea eta balioestea, norberaren portaera eta elkarbizitza **erregulatzeko**.
4. Gainerako haurren eta helduen mezuak ulertzea eguneroko bizitzako egoeratan eta hartu-eman horietako arauak ikasten hastea, komunikatu nahi dena eta komunikatzen ari zaiona **interpretatzeko**.
5. Hizkuntza ofizialetan eta ingurunekeo hizkuntza askotarikoekiko jarrera irekia eta errespetuzkoa izatea, beste errealitate eta kultura batzuk **deskubritzeko** eta **errespetatzeko**.
6. Hainbat kultura tradizioetako diskurtsoengan, ahozkoak zein irudizkoak, interesa izatea haiekin **gozatzeko** eta **balioesteko**.
7. Hurbileko testuinguruan matematika adierazpenak erabiltzea (blokeak, segidak, multzoak...) objektuen eta naturako materialen ezaugarriak eta ingurunekeo egoerak **interpretatu** eta **deskubritzeko**.
8. Naturaltasunez arte produkzioetan (musikaren, gorputzaren, ... bidez sortutako produkzioetan) parte hartzen hastea, teknika desberdinak erabilia, komunikazio aukera desberdinak **ulertzen hasteko**.

Haurreskolak Partzuergoko helburu orokor hauek hartuko ditu abiapuntu haurreskola bakoitzak bereak idazteko, 4.2. atalean hain zuzen ere, beti ere haurraren adina eta garapen prozesua kontuan izanik.



### 3.3. ANIZTASUNA

Aniztasuna errespetatzearen balioa agiri osoan jasotzen bada ere, beharrezkotzat jotzen dugu hausnarketa labur bat egitea.

Haurrek hezkuntzarako sarbidea izango dutela bermatzea da eskola inklusiboaren ezaugarri nagusia, eta hezkuntza horrek kalitatezkoa izan behar du, eta aukera berdinak eman beharko dizkie pertsona guztiei.

Pertsona guztiok ditugu ezaugarri komunak, baina antzekotasun horiek ditugun arren, alde handiak izaten dira pertsonatik pertsonara. Pertsona guztiek ez dute komunikatzeko, mugitzeko, ikasteko, harremanak lantzeko, jarduteko edo pentsatzeko modu bera izaten, desberdinak baitira pertsonen ezaugarri fisikoak, psikologikoak eta sozialak.

Aniztasuna zaintzeko, modu inklusiboan ezagutu, errespetatu, onartu, balioetsi eta landu behar dira desberdintasun edo diferentzia indibidual eta kultural horiek guztiak. Premiazkoa da arretaz begiratzea hezkuntza laguntza jasotzeko zer beharrian biologiko eta psikosozial berariazkoak izan ditzaketen haurrek, haiek garaiz hauteman eta identifikatzeko. Egoera horiek hautemateko, lankidetzan estuan jardun behar dute familiek eta haurreskoletako hezitzaileek, jardun irizpide komunak bilatuta.

Haur Hezkuntzarako proposatzen den hezkuntza ildoak ez da «denak aldi berean gauza bera egin» erakoa, eta bai aniztasuna errespetatu eta haren hezkuntza tratamendu aktiboa egitea, anitzak baitira garapen mailak, erritmo biologikoak, familia kulturak, ikasteko moduak, interesak, etab. Aniztasun horri erantzun egokia emateko, berrikusi egin behar ditugu hezkuntzako eta esku hartzeko modua, familiekiko harremana, talde lana eta, horrez gain, haurreskola osorako erabakiak hartu behar ditugu. Metodologia irizpideek ez dute zurrunik izan behar, horrelako metodologiak ez baitira egokitzen testuinguruen errealitateara eta haurren ezaugarri eta beharrezanetara.

Aniztasunari erantzuna emateko beharrezkoa da haurren hezkuntza prozesua ahalik eta indibidualizatuena egitea, norberaren gaitasun maila eta erritmora egokitzeko. Horretarako, eguneroko behaketaren bitartez, umeen garapen mailari, esperientziei, bizipenei, ikasteko erritmoei,... buruzko informazioa jaso eta kudeatuko dugu.





### 3.4. HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK

Haurren garapenaren eboluzio faseak konstanteak dira lehen urteetan, eta haur bakoitzaren ezaugarriek prozesua baldintzatzen duten alderdi hauetan hartzen dute parte: gizabanako bakoitzaren ahalmen psikobiologikoak, ingurune sozialaren ezaugarriak, jasotzen dituzten kanpo estimuluak hobetsi eta helduek hartzen dituzten rola -familia eta hezitzaileak batez ere-.

Haurrek heltzeko erritmo desberdinak dituzte eta uneoro errespetatu behar ditugu erritmo horiek. Ez da erraza izaten garapenaren lehen urteetan argi desberdintzea noiz diren aldi baterako hezkuntza premiak, garapen prozesuari berari lotuak eta noiz hezkuntza premia bereziak.

Gaur egun, gero eta aukera gehiago daude zenbait aniztasun funtzional goiz hautemateko, eta, ondorioz, oso goiz ezagutu daitezke hezkuntza premia bereziak eta garaiz eman daiteke aniztasun funtzionalak konpentsatzeko laguntza egokia.

#### **Hezkuntza premiak gizabanako bakoitzarenak eta askotarikoak izan daitezke**

Haurreskolak leku egokiak dira haurren behaketa eta jarraipen zehatza eta egokia egiteko. Ez dugu ahaztu behar haur bakoitzak bere erritmo propioa duela eta oso ondo bereziki behar dugula garapen normala, garapen geldoa (baina egokia hau ere), bat ere garapenik ez egotetik. Alerta egoeran jarriz gero, behaketa sakonagoa egitea izango da egokiena, eta, behar izanez gero, Haurreskolak Partzuergoak duen protokoloa martxan jarri.

Horretaz gain, baliteke gure haurreskoletara etortzen diren haurren artean hezkuntza premia bereziak dituztenak egotea lehendik antzemandako nahaste edo gutxitasun batengatik. Mugimenduaren nahasteren bat edo garapenaren atzerapena duten haurrak izan daitezke, entzumen edo ikusmen urritasunak dituztenak, edo hezkuntza premia jakin batzuei lotutako kromosomopatiak... Kasu horiek jada bideratuta egotea da ohikoena. Hori dela eta, beste profesionalekin elkarlana egingo du hezitzaile taldeak.

Informazio gehiago: "Hezkuntza premia berezien arreta Haurreskolak Partzuergoan"<sup>2</sup>

<sup>2</sup>Eranskina: Hezkuntza Premia Berezien Arreta Haurreskolak Partzuergoan



### 3.5. HIZKUNTZAREN TRATAERA

Hitz egiteko gaitasunak pertsonekin harremanak izateko eta mundua nolakoa den azaltzeko bidea ematen digu, eta gaitasun hori garatzeko gizarte ingurunearen laguntza behar du.

Familia giroan hasten gara hizkuntza lantzen. Umeek ingurune horretan garatzen dute, jaiotzen direnetik, hitz egiteko gaitasuna.

Haurreskolek geroz eta garrantzi handiagoa dute egungo gizartean, geroz eta goizago esku hartzen baitute haurren bizitzan. Hori dela eta, haurreskolak bere gain hartzen du, familiekin batera, hizkuntza lantzeko eta garatzeko ardura.

Hizkuntzak garatzeko, haurrak gizarte ingurunearen laguntza behar du. Hizkuntza modu naturalean ikasteko komunikazioa oinarria da. Helduok, hitz egokien bidez, haurrei beraien hizkuntza osatzen lagunduko diegu. Helduok hitz egiten diegun neurrian hizkuntza eraikitzen eta hitz egiten ikasiko dute.

Honen inguruan Haurreskola Partzuergoak hizkuntzaren tratamendurako dokumentua du "Hizkuntzaren tratamendua Haurreskolak Partzuergoan" hain zuzen ere.<sup>3</sup>

### 3.6. HEZKIDETZA HAURRESKOLAK PARTZUERGOAN

Haurreskoletako eginkizunen oinarrian haurren garapen osoa bilatzea dago; alde batetik, haur guztien eskubideak eta ongizate psikiko-fisikoa bermatzea, eta, bestetik, haur bakoitzaren gaitasun guztiak garatzea.

Genero identitateari dagokionez, esan beharra dago 0-3 etaparen amaieran eraikitzen hasten dela eta ondorioz gure esku hartzeek asko baldintza dezaketela generoari loturiko haur bakoitzak egiten duen eraikuntza.

Gizartean oraindik ere eredu patriarkal, androzentriko eta heterozentristak dira nagusi, eta horiek erreproduzitura gure txikienei genero identitatea askatasunez eraikitzea oztopatzen zaie.

---

<sup>3</sup> Eranskina: Hizkuntzaren tratamendua Haurreskolak Partzuergoan



Aurrerapausoak eman diren arren bide luzea dago egiteko, hezkidetza eta parekidetasunaren ikuspegitik. Haurreskolak, haur bakoitzaren garapen integrala bultzatuko badu, ahalmen eta ezaugarri afektibo sozialak zein kognitibo eta motrizak biologiaren ustezko menpekotasunetik eta gizartearen ohiko ikuspegiaren baldintzapetik urrun egin beharko du.

Pertsona guztien egiteko eta jarduteko moduetan erabat inkontzienteki barneratuak dauden ereduak dira eta haurreskola osoa eratzen dutenen partetik, barne hausnarketa-behaketa sakona eskatzen du.

Horretarako, haurreskola osatzen duten eragile guztiei zuzendutako sentsibilizazio eta prestakuntza batetik abiatu eta sexu-genero perspektibatik abiatutako diagnosi baten ostean, hezkidetzari loturiko haurreskolako hobekuntza plana egiteko moduan izango da haurreskola bakoitza.

“Hezkidetza Proiektua Haurreskolak Partzuergoan” txostena arestian aipatutako hori guztia garatzen laguntzeko sortu da. Sentsibilizatorako gaiak azaleratu, genero perspektibatik diagnosi bat egiteko tresnak luzatu eta hezkidetza eta parekidetasun hobekuntza plana egiteko baliabideak eskaini nahi ditu.

Honen inguruan, Haurreskolak Partzuergoak hezkidetzaren trataerarako aipatutako dokumentua du “Hezkidetza Proiektua Haurreskolak Partzuergoan” hain zuzen ere<sup>4</sup>

---

<sup>4</sup> Eranskina: Hezkidetza Proiektua Haurreskolak Partzuergoan



## 4. \_\_\_\_\_ HAURRESKOLAREN HEZKUNTZA PROIEKTUA

Haurreskolaren Hezkuntza Proiektua dokumentu globala eta integrala da, eta ezaugarri hauek ditu:

- Haurreskolaren izaera berezia eta bakarra definitzen du.
- Haurreskolako profesionalen ekarpenak eta erabaki adostuak biltzen ditu, eta horien inplikazioa sustatzen du.
- Kalitatezko esku hartzea ahalbidetzen du haurreskolako haur bakoitzarentzat.
- Hezitzaile taldearekin profesionaltasuna eta etengabeko hobekuntza garatzeko konpromisoa jasotzen du.
- Etorkizunera proiektatuta dago.
- Proiektu koherentea da.
- Berrikusi eta eguneratu behar da.

### 4.1. TESTUINGURU FISIKO ETA SOZIALA

Inguruneak, zalantzarik gabe, eragina izango du haurreskolako bizitzan eta bizi dugun errealitatea kontuan hartu beharko dugu. Beraz, garrantzitsua da gure Hezkuntza Proiektuan, haurreskola kokatuta dagoen inguruneari buruzko hainbat informazio jasotzea:

#### a) Haurreskolaren testuinguruaren eta ibilbidearen analisia

- Haurreskolaren hastapenak: haurreskolaren kokapena, istorioa, irekiera urtea, zenbat gela eta haurrekin (baldin badakigu), plana
- Etab.



#### b) Haurreskolako hezkuntza jarduera orokorraren eta haurreskolako antolaketaren azterketa

- Haurreskolaren ezaugarriak, espazioak (barruko espazioak eta kanpoko espazioak), unitate kopurua...



- Pertsonal baliabideak (hezitzaileak eta hezitzaileak ez diren langileak: sukaldaria, garbitzailea, atezaina...)
- Haurreskolak ematen dituen zerbitzuak: ordutegia, ikasturteko egutegia, jangela...).
- Etab.



## 4.2. OINARRI TEORIKOA, HELBURU ZEHATZAK ETA EDUKIAK

### HAURRESKOLAREN OINARRI TEORIKOAK

Haurreskolak Partzuergoko haurreskoletan egunero hartzen diren erabakiak ez dira modu arbitrarioan hartzen; aitzitik, hainbat teorian eta ikerketetan oinarritzen dira:

- **Neurozientziak** haurra barrutik nolakoa den, bere nerbio sistema nola garatzen den eta haurraren etorkizunean helduen esku hartzeak (familia eta hezkuntza sistema) duen papera erakusten digu. Kontuan izan behar da, zientzia arlo honen arabera, genetikaren eta ingurunearen arteko elkarrekintza zuzenak baldintzatuko dituela garuna osatzeko moduak eta garun honek bizitza interpretatzeko moduak.
- **Psikologiaren** esparruan jasotako ekarpenek haurraren garapen pertsonalean eta sozialean egoera emozionalek duten garrantzia azaltzen laguntzen dute; halaber, helduek, euren egiteko moduarekin eta haurra hazteko duten ereduarekin, haurrari mundua ulertzen eta munduan kokatzen nola laguntzen dioten azaltzen dute.
- **Esparru pedagogikoan** egiten den planteamenduaren bitartez, hezkuntza teoriari komenigarria iruditzen zaiona hezkuntzako esku hartzeetan gauzatu behar da, teoriaren eta praktikaren artean dagoen distantzia murrizten laguntzeko.

Hezkuntzan hausnarketa sakonak egiten ari dira. Haurrak bere ikaskuntza propioan paper aktiboa duela sinesten da, baita esperimentazioak duen balioa ere.

Alor desberdinetatik egindako lana, egiten ari direnak eta egingo direnak kontuan hartuko ditugu, haurren garapen fisiko, kognitibo, sozial eta afektiboari buruzko ezagutzan sakontzeko, baita haurreskolako praktika kontzienteak osatzeko ere, praktikak gure egiteko modua oinarritzen eta justifikatzen duten oinarri teorikoak izan behar baititu.



## \_\_\_\_\_HAURRESKOLAREN HELBURU ZEHATZAK

Haur Hezkuntzako dekretua oinarritzat hartuta **Haurreskolak Partzuergoko helburuak** (11. orrialdetik 13. orrialdera) hartuko ditu abiapuntu haurreskola bakoitzak bereak idazteko, betiere haurraren adina eta garapen prozesua kontuan izanik.



## \_\_\_\_\_HAURRESKOLAREN EDUKIAK

Haur Hezkuntzako dekretuak dituen edukiak hartuko ditu abiapuntu haurreskola bakoitzak bereak idazteko, betiere helburuak, haurraren adina eta garapen prozesua kontuan izanik.





## 4.3 ARLO PEDAGOGIKO ETA METODOLOGIKOAK

### 4.3.1. Hezkuntza elkarreraginen antolaketa

**Hezkuntza Printzipioak irizpide izango dira, berebiziko garrantzia dute eta**

#### a. Hezitzailea

Haurrek moduan, helduok ere gaitasun ezberdinak ditugu eta onarpena, segurtasuna eta lasaitasuna behar dugu. Horregatik:

- Gauzak nola egiten ditugun eta nola egin nahi ditugun aztertu eta hausnartuko du hezitzaile taldeak. Arlo profesionalean hazteko, eguneroko jarduerak, ezagunak ditugun alderdietan oinarritzeaz gain, aztertu, ebaluatu eta egokitu egingo ditugu proposamen berriak abian jartzeko. Beti gauzak aldatzeko eta hobetzeko prest egoteko beharra dago.
- Haurreskolan, lan ildo eta kultura bateratu bat sortzeko gure lanaren aspektu profesionalak lankideekin konpartituko ditugu. Lan egiteko dinamika honek haurreskolako bizitza, haurraren garapena eta haurren hezkuntza prozesuan parte hartzen duten pertsona oro aberastuko du.
- Arduraz antolatu eta planifikatuko ditugu pertsonal baliabideak, haurrei ahalik eta ingurunerik koherenteena eskaintzeko. Ingurune horrek haurren garapena sustatu eta erraztuko du, eta, beharrezkoa bada, gabeziak konpentsatuko ditu.
- Espazio, objektu eta materialen aurkezpenaz eta zaintzaz arduratuko da hezitzaile taldea.
- Hezitzaile taldearen esku hartzea koherentea izateko adostua eta bateratua izango da.
- Haurreskolak ongi funtziona dezan eta lan giroa osasuntsua izan dadin, hezitzaileek, pertsona helduen eta haurren kopuruari eta horietako bakoitzaren ezaugarri espezifikoerik erreparatuta, lan taldea ahalik eta modurik arrazionalen antolatuko dute.

Zer irizpide erabiltzen ditugun \_\_\_\_\_haurreskolan:

- a. Taldeak egiteko eta banatzeko.
- b. Koordinatzailea aukeratzeko.
- c. Ardurak banatzeko.



### Hezitzaileen arteko elkarreraginak

Talde lanak pertsonak aberasten ditu eta ikuspuntu guztiekiko elkarreraginak errazten ditu; gainera, behar-beharrezkoa da haurren garapen ebolutiboaren jarraipen zuzena egiteko, programazioak egiteko, behaketa lana adosteko, eta, gerora, erabakiak segurtasun handiagoz hartzeko.

Harreman horiek ez dira beti maila eta une berean gertatuko:

- Gela berean lan egiten duten hezitzaileen arteko harremana.
- Adin bereko hurrekin lan egiten duten hezitzaileen arteko harremanak.
- Haurreskolako hezitzaileen arteko harremana.
- Beste haurreskola batzuetako hezitzaileekiko harremana.

Era berean, haurreskolak duen Hezkuntza Proiektua aurrera eramateko ezinbestekoa da hezitzaileek taldean lan egitea, informazioa trukatzeko eta erabakiak guztien artean hartzea, hau da, **praktika kontzienteak** adostea.

Praktika kontzienteak: hezitzaile taldeak esku hartzeak definitu behar ditu, teoriak jasotako ezagutzak eguneroko praktikarekin uztartuz. Lan horren ondorioz lortzen dira definizio eta egiteko moduak deskribatzen dituzten praktika kontzienteak.

Praktika kontzienteen bidez, hezitzaile taldeak bere esku hartzea teorikoki argudiatuko du eta praktika estrukturatu, deskribatu, zehaztu eta bateratuko du talde mailan. Horretarako, etengabeko hausnarketaren bidez haurreskolak dituen egiteko modua definituko du.







## b. Haurra

Haurraren bizitzako lehen unetik garatzen dira oinarrizko funtzio sentsorialak, funtzio emozionalak eta motrizitate funtzioak.

Jarduera erreflexuak alde batera uzten hasten dira, gorputzak sentsazio desberdinak jasotzen ditu mugitzen denean, objektu desberdinak manipulatzeko, zentzumenetatik jasotzen dituen estimuluetan. Informazio hori guztia bizitzen, lantzen, barneratzen joaten den heinean, haurra bere gorputzarekiko kontzientzia hartzen eta bere gaitasun autonomoaz jabetzen joango da, bere burua espazioan kokatuko du, erabakiak hartuko ditu, proiektu desberdinak garatuko ditu norberaren ekimenez...

Horretarako, beharrezkoa izango da lotura afektibo egonkorrak eta kalitatezkoak eraikitzea haurraren eta hezitzailearen artean, bere heltze prozesuan aurrera egiteko, ongizatea bermatzeko eta beharrezkoa duen segurtasuna eta konfiantza eskuratzeko. Haurra haurreskolara etortzen den lehen egunetik hasi behar du profesionalak atxikimendu seguru eta osasuntsua eraikitzeko oinarriak jartzen, behar duen denbora eskainiz, erritmoak errespetatuz, haurrak sentitzen duena ulertzen eta onartzen, haurrarentzat esanguratsuak diren pertsonekin hartu-emanak izaten ...

Hezitzaileak hainbat une hartuko ditu kontuan, hala nola pixoihala aldatzean, otorduetan, atsedenean, aurpegia garbitzerakoan... harremanean gehiago sakontzeko eta haurrak behar duen segurtasuna eta banakotasuna eskaintzeko.

**Funtsezkoa da hezitzaileak haurraren oinarrizko beharrei erantzutea eta segurtasun afektiboa eskaintzea, haurrak ingurunea ezagutzeko grina izateko eta garapenean aurrera joateko.**

Hazten doan heinean, haurraren mugimendu eta desplazamenduak zabalagoak izango dira espazioan zehar, manipulazioa gero eta zehatzagoa, hala ikusiko da, esate baterako, jateko koilara hartzen duenean; objektu desberdinak manipulatzeko dituen; mugimendua eta manipulazioa konbinatzerakoan, adibidez, esku artean duen bolumen handiko objektu bat gelatik zehar garraiatzen duenean eta beste hainbat ekintza egiten dituenean.

Hitzik gabeko komunikazioak leku handia izaten du, baina garapenean aurrera doan heinean hitzekin konbinatzen hasiko da, eta konbinazio horrek erritmo eta intentsitate ezberdinak izango ditu, haurraren arabera. Ondoren hasten dira hitz-esaldiak esaten, eta, aurrerago, bi termino edo gehiagoko esaldiak osatuko dituzte, beti kontuan izanda haur bakoitzaren garapena desberdina dela.

Erreferentziako hezitzailearen irudia mantenduko da bera baita haurrari segurtasuna ematen diona haurreskolan dagoen bitartean, baina horrek ez du esan nahi besteenganako interesa edo besteekiko harremanik ez duenik. Haurra txikia denean, interesa azaltzen du espazio berean berarekin batera dauden haurrenganako eta helduenganako.

Interes hori zabaltzen joango da, ikusiz, behatuz, ukituz, eta parean duen hori objektu edo pertsona bat den desberdintzen joango da. Ondoren, elkarren ondoan jolastuz, ekintza berean parte hartuz: haur bat beste baten atzetik joanez, ku-ku egiten jolastuz, objektuak ontzietan txandaka sartuz...

Garapen motor edo hizkuntzaren garapenarekin gertatzen den bezala, besteenganako interesa bere bidea egin behar duen prozesu bat bezala hartu behar da.

Haurra, beraz, jaiotzen denetik etengabeko bilakaera batean dago murgildurik arlo fisikoan, psikikoan, kognitiboan, emozionalean, afektiboan... Hori dela eta, haurreskolak prestatuta egongo dira haurren ahalmen guztiek lekua izan dezaten eta behar guztiak asetzeko.



### **Haurren arteko elkarreraginak**

Jaio eta hiru urte bitartean hurrek bizi duten garapen prozesuan, haurra bere burua deskubritzen ari da, hau da, NIaren eraketan murgilduta dago. Hori dela eta, bereziki zaila egiten zaio taldean adin berekoekin bizitzea. Izan ere, taldean bizitzen daudenean besteengan arreta jartzera bultzatuta dago, objektuak bezalaxe helduaren atentzioa ere elkarrekin banatu behar izaten dute, itxaroten ikasi behar dute, beraien burua asebetetzeko estrategiak ere ikasi behar dituzte, ...

Egoera horiei modu osasuntsu eta erresilientean aurre egin ahal izateko, egoera ulertzen lagunduko dizkien gaitasun kognitiboak behar dituzte.

Oraindik gainerakoekin bizitzen ikasten ari dira. Batzuetan, hurrek haien pultsioen aginduz jarduten dute, eta horrek, batzuetan, beraien kabuz kudeatu ezin dituzten egoerak pairatzera eramaten dituzte.



Txiki-txikitatik izaten dute elkarrenganako interesa; zutik jartzeko gai izan baino lehenagotik ere. Espazioan desplazatzen hasten direnean, jakin-minak bultzatuta, beste hurrekin harremanetan jartzen dira. Topaketa hauek, batzuetan, atseginak izaten dira, eta beste batuetan, berriz, ez hainbeste.

Lehenengo urtean, bestea objektu batetik desberdintzen joaten dira. Bestearen gorputza esploratzea gogoko izan ohi dute eta poliki-poliki ukimenaren eta objektuen bitartez harremanak izaten hasten dira. Bestearen ekintzarekiko interesa hasiko da, imitazioa, moldatzea, ... Horregatik gertatzen da, adibidez, batek besteari iletik tira egitea. Gomendagarria da hasieratik mugak jartzea eta horrelako egoerak ez onartzea. Txikiak direnean ez dute minik egiten, baina hazten doazen heinean mina dela-eta jokabide horiek debekatu beharko ditugu, eta haurarentzat zaila izango da ordura arte onartzen zena zergatik ez den onartzen ulertzea. Haurrak hasieratik mugak garbi ulertu behar ditu, biolentziarik eta haurrarekiko epaiketarik gabe, eta **hezitzaileak ekintza gaitzetsiko du eta ez haurra.**

Horrelako jokabideez gain, elkartrukea, elkar banatzea, kontsolatzea, objektu bat eskaintzea ... ere etorriko dira, bestearen beharrak aitortzen hasiko baita. Hezitzailea eredu dela kontuan izanik aspektu horiek kontuan izango ditu.

Bigarren urte inguruan elkarrekiko imitazioa, jolas paraleloak, motrizitate imitazioak ematen dira. Taldea osatzen dute zerbaiten inguruan, intsektu baten inguruan, adibidez ... Horrekin batera, hitz egitearen garrantzia ere indartuz doa. Elkarrekikotasunaren garapena ere mailaka gertatuko da.

Hiru urte inguruan, kooperazioaren hastapenak ematen dira, taldekako lana, irudimena, sinbologia, jolas polifonikoak, adibidez, trenaren jolasa, dorre bat eraikitzekeo piezak txandaka jarri ...

Arestian aipatu bezala, haurren arteko elkarreragin batzuek gatazkak sortzen dituzte. Nola esku hartu dezake profesionalak?

Liskar egoera bat gelditu aurretik itxaron egingo du, maiz haurren artean konpontzen baitute egoera. Esku hartu aurretik beharrezkoa da behaketa, hausnarketa eta elkarrekin hitz egitea. Irtenbidea ez da soilik egoera konkretu horretarako bilatuko, etorkizunerako baizik, beti gogoan izanik hezitzailea eredu den heinean horren arabera jokatu duela.

Esaterako, haur batek beste bati objektu bat kentzen badiu, hezitzaileak ezin du objektua daukanari objektua kendu eta aldi berean gauzak ez kentzeko esan. Hori egiten badu, ekintza eta mezua ez dira bat etorriko. Horretaz aparte, ekintza bera esanguratsuagoa da haurarentzat mezuan esaten dena baino. Horrelako

egoeratan haurrari denbora eta aukerak eskaini behar zaizkio: beste objektu bat eskaini, objektua beste haurrari itzultzeko eskatu, objektua hezitzailearen eskuan uzteko aukera eman .... Eta haurrari denbora emango zaio bere erabaki propio hartu ahal izateko, horrela haurra pertsona errespetatua eta ulertzen zaionaren sentipena izango baitu. Arestian aipatu bezala, jokabidea da gaitzesten duguna, ez haurra.



### c. Hezitzaile eta haurren arteko elkarreraginak

Hezitzaileak erreferentziatzeko pertsonak dira haurrentzat, pertsona ezagunak, egonkorak eta segurtasuna ematen dutenak. Haurrekiko interesa izango dute eta interes hori erakutsiko, eta haur bakoitza onartuko eta errespetatuko dute, ezaugarri propioak dituzten pertsonak diren aldetik. Haurrak hartu eta balioetsiko dituzte, eta haien arteko diferentziak, familia testuinguruen berezitasunak, eta haur bakoitzaren garapen erritmoa eta izateko erak errespetatuko dituzte.

Helburua ez da portaera estandar bat lortzea; aitzitik, garrantzitsua da hezitzaile bakoitzak bere izaera eta estilo propioa erabiltzea lanari ekiteko, beti ere Hezkuntza Proiektua errespetatuz.

Ezinbestekoa da haurrak hartzeko eta haurrei entzuteko prest egotea, eta zehatz-mehatz ezagutzea bai haur bakoitza, bai haur bakoitzaren aukerak, bai haur bakoitzak behar duena momentu oro.

Adin horietako hurrekin lan egiten duten profesionalak:

- a. Sakon ezagutu behar ditu haurren garapen ebolutiboa, eskubideak eta beharrak.
- b. Haurren segurtasun fisiko eta emozionala bermatu behar ditu honen ongizatea ahalbidetzeko
- c. Gauzak zergatik eta zertarako egiten dituen jakin behar du. Sortzen diren premiei erantzuteko egokitzeko gaitasuna eta jokabide malguak izan behar ditu.
- d. Tentsio egoerak kontrolatu behar ditu. Hor egongo da hurrek dituzten zailtasun egoeretan, denbora emanez, bere presentziarekin... laguntzeko.
- e. Egiatzko elkarreraginerako konpromisoa hartu behar du, eta ez du nahastu behar bere egitekoa familiarenarekin.



- f. Egiten dituen esku hartzeen ondorioak eta haurren lorpenak aztertu behar ditu, eta, azterketa horretan oinarrituta, segurtasunez jardun behar du.
- g. Ikasteko grinari, eguneroko lana hobetzeko borondateari eta prestatzeko interesari eutsi behar die.
- h. Interesa, errespetua eta harreman profesionala erakutsi behar die haurrei eta familiei, etengabe komunikazio bideak sortuz eta elkarrenganako informazio trukaketa ahalbidetuz.
- i. Lankideei lagundu behar die, eta koordinatu, iradokizunak onartu, ideiak trukatu eta taldean lan egin behar du.

### Hezitzaile profesionalaren helburuak

Haurreskolak Partzuergora etortzen diren haurren erantzukizuna dugu, familiekin batera. Familia bere seme-alabaren arduradun garrantzitsuena izanik, haurrekin lan egiten duten hezitzaile profesionalak haur horien erantzule eta bide lagun dira haurreskolan dauden denboran. Hori horrela izanda, ezinbestekoa da hezitzailearen profesionaltasunaren hausnarketa sakona egitea eta haurrarekiko duen begirada eta helburuak definitzea. Horretaz gain, gure lanbideari dagozkion helburuak eta horiek aurrera eramateko beharrezkoak diren deskribapenak eta zehaztapenak ezarriko ditugu talde mailan.

Helburuez hitz egiterakoan, haurrei jartzen zaizkien helburuez ari gara beti. 3. puntuan Haurreskolak Partzuergoaren helburu orokorrak ditugu eta horiek haurrei dagozkien helburuak dira. Zer gertatzen da hezitzaile profesionalak lortu behar dituen helburuekin? Hezitzaileak ez badu haurrarekin atxikimendu osasuntsu bat eraikitzen, lana modu profesional, kontziente eta arduratsu batean burutzen, garapen mailari eta adinari dagozkion helburuak ezagutzen, identifikatzen eta behatzen ez baditu... ezingo du bere lana modu profesionalean burutu, eta haurrei ezarritako helburuak ezingo dira bete edo neketsuago izango da haurrek betetzea.

Hezitzailearen egitekoaren baitan egongo da haurraren ongizatea eta bere gaitasunak azalerratezea. Hezitzaileak ezinbestekoa du adin honen ezaugarriak ezagutzea, eskaintza koherenteak eta adinari dagozkionak aurkeztea. Haurrei eskaintako espazioak, aukerak, proposamenak... pentsatu, antolatu eta aurkeztuko ditu. Horiek, ondoren, ebaluatuak izango dira, hezitzailearen praktikaren etengabeko hausnarketa eta hobekuntza ahalbidetuta. Beraz, ezin da ikaste prozesuaren erantzukizun osoa haurrengan jarri, hezitzailea ere prozesu honen arrakastaren baldintzatzaile nagusietakoa da eta. **Ikasketa ez da helburua, ondorioa baizik, haurrak bizi ahala ikasiko baitu, eta**



## **horretarako, hezitzaileari dagokio beharrezkoak diren baliabideak jartzea.**

Hezitzailearen helburu nagusia, zehatza eta argia da: HAURRAREN ONGIZATEA BERMATZEA. Eta, horretarako, profesionalaren egitekoa, bere eguneroko jarduna ebaluatzean datza, irizpide argiak ezarriz. Profesionalak, etengabeko auto-ebaluazioa burutu behar du. Horretarako, hainbat aspektu hartuko ditu kontuan, bere erantzukizuna baita:

- Bere esku hartze, jarrera, ezagutzak ... amaigabeko analisisian eta berrikuntzan izatea
- Haurra pertsona oso eta balioduntzat onartzea
- Familia errespetatzea, eta familiekin burutuko diren hartu-emanei garrantzia ematea eta zaintzea
- Haurrarekiko lotura afektibo osasuntsua eta profesionala eraikitzea
- Haurra eta bere erritmoak errespetatzea, bere gaitasunetan sinestea
- Harremanak modu errespetagarrian edukitzea
- Haurrarekin egoteko, elkarri eragiteko, beregana zuzentzeko moduak zaintzea
- Jarrerak, portaerak, hitzak... zaintzea, eredu baitira
- Hezitzaileak, haurren garapenaren ezagutza sakona izatea
- Objektu eta materialen azterketa sakona burutzea eta horien aurkezpenaz arduratzea, haurrak ekiteko gogoak izan ditzan. Horien etengabeko hausnarketa burutzea
- Haurrak biziko duen barne eta kanpo inguruaren aberastasuna lortzea
- Taldean lan egitea, hezitzaile guztiek modu koherentean jarduteko

Hezitzaileak izan behar dituen helburuak eta horiek ebaluatu beharreko irizpideak galdera honen bueltan hartu beharko litzateke: **Zer eskaintzen dio hezitzaile profesionalak haur bakoitzari haurreskolan dagoen bitartean...**

- gogoak izan ditzan askatasunez mugitzeko, ingurua eta bertan dagoena behatzeko, aztertzeko, esperimendatzeko?
- bere barreetik sortutako proiektuak burutzeko? Iniziatiba pizten eta indartzen duten proposamenak eskaintzen ditu?
- gogoz jarduteko?
- bere interes, nahiak, desioak jarraitzeko?
- bera den bezala askatasunez bizitzeko?

- autonomo izateko?
- bere poza, haserrea, tristura, frustrazioak... askatasunez azaleratzeko?
- lasaitasunez komunikatzeko, berak esandakoa entzuna izateko eta erantzuna eduki dezan?
- bere beharrak asetzeko? planifikazio egokia eta praktikoa sortu du? espazio osasuntsua eta aberatsa antolatu du?
- zaintza uneetan, jolasean dagoenean...?
- ...

---

#### **haurreskolako hezitzaile profesionalaren helburuak:**



#### **d. Familien eta hezitzaileen arteko elkarreraginak**

Ikuspegi inklusiboa oinarri duen haurreskolak ezin da isolaturik geratu; bere ingurune fisiko eta sozialarekin elkarreraginean jardun behar du.

Haurreskolak Partzuergoko haurreskola batera joatea beste pertsona heldu eta beste haur batzuekin bizitzeko aukera eta erronka dakarkie haurrei. Familia bizitzaren eta haurreskolako bizitzaren artean jarraipena dagoela sentitzen badute, komunitate bateko kide sentimendua indartuta dutela ekingo diote erronka berri horri.

**Familiekin batera lan egitea da gure egitekoa, haurren ongizate biopsikosoziala bermatzeko.** Horretarako, haurren hezte prozesuan bidelagun izan behar dugu, eta haiekin egoteko modu eta giro egokiak sortuko ditugu, ongizate hori lortzen lagun diezaguten.

**Haurren ongizate orokorra babesteko ezinbestekoa da hezkuntza prozesuan parte hartzen duten guztien arteko elkarlana izatea (familia eta hezitzaileak).** Izan ere, pertsona heldu guztiok parte hartu behar dugu lan horretan, bakoitzak geure ezaugarri propioetatik abiatuz. Gure artean hitz egin, hausnartu eta akordioetara iritsiko gara elkarrengan konfiantza izateko norabide berean lan egin ahal izateko.



Elkarrekin egin behar dugu bidea, eta harreman bideak ezartzea da gure egitekoa, familiek eta hezitzaileek haurren heziketari buruzko irizpide komunak konpartitzeko, eta bi testuinguru horien arteko jarraipena bermatzeko. Horretarako, harreman bide batzuk sarriago erabiliko dira, haurra haurreskolara eramateko eta jasotzeko uneak eta, beste batzuk, berriz, une erabakigarrietako beharrei erantzuteko erabiliko dira, bakarkako bilerak, taldeko bilerak...

Harreman honen oinarria bateratzea, errespetua eta elkarlana izango da, eta aintzat hartuko da bi aldeek interes berak ditugula: haurraren ongizatea eta haiei erreferentzia esparru egonkorra, koherentea eta segurua eskaintzea bere ahalmen eta nahi guztiak garatu daitezen.

**Familia guztiengandik ikas dezakegu zerbait, baina oso garrantzitsua da mugak bereizten jakitea. Esaterako, eremu pribatua ez sartzeta eta geurea babestea, epaituak ez sentitzea edo sentiaraztea, eta familien erabakiak errespetatuz haurreskolako irizpideak, kasuan kasu, moldatzea edo mantentzea.**

Familiekin honako hartu-emanak izan ohi ditugu:

#### **Haurreskola-familia:**

- Ate irekien egunean
- Izen-ematea, informazio bila etortzen diren uneetan
- Bilera orokorra haur berrien familiekin
- Haurreskolak antolatzen dituen jardueretan **familien parte hartzea:** kurtso amaierako festa, familiei zuzendutako hitzaldiak...

#### **Nola burutzen dugu?**



#### **Hezitzailea-familia:**

- **Hasierako bilera orokorra** familia guztiekin, haurrak haurreskolan hasi aurretik. Bilera horretan azalduko dira haurreskolaren funtzionamendua, arautegia, egokitze aldia eta familiek ezagutu behar dituzten alderdi guztiak. Familiek elkar ezagutzeko ere erabiltzen da.



- **Lehenengo bileran familia bakoitzarekin elkarrizketa egiteko,** seme-alabei buruz emandako informazioa jasoko da (haurren ohiturak, harreman motak, erritmoak, etab.), eta familiek dituzten zalantzak argituko dira. Ondorengo bilerak informazioa trukatzeko izango dira; hezitzaileak prest izan beharko ditu hitz egiteko eta balioesteko gaiak, baina malgutasunez jokatu da, eta lasaitasunez hitz egiteko gonbidapena egingo zaie familiei, haien iritziak eta ekarpenak aintzat hartzeko.  
Topaketa sistematiko horiez gain, malgutasunez jokatu behar dugu familiekin biltzeko ordutegiei dagokionez, informazioa eskatzeko, kezkatzen dituen zerbait tratatzeko, eta abarrerako.
- **Harremanak egokitzapen garaian.** Konfiantza eta segurtasun giroa sortzen saiatuko gara, haurrek errazago egin dezaten familia testuingurutik haurreskolako testuingururako bidea.
- **Eguneroko harremana.** Haurreskolara iristeko eta bertatik irteteko unek dira familiaren eta hezitzailearen arteko eguneroko harreman unek. Une horietan, haurra izango da "protagonista"; esaterako, zer moduz pasa duen eguna, lorpenak, zer jan duen, nola egin duen lo/nola deskantsatu duen, esfinterren informazioa, harremanak, etab. Halaber, idatzizko informazioa emateko unea izan daiteke, bai familiaren aldetik, bai hezitzailearen aldetik.
- **Aldizkako harremanak familia bakoitzarekin.** Topaketa sistematikoak dira, ikasturtean zehar hainbat unetan egin ohi direnak (hasieran, amaieran...).
- **Talde bilera orokorrak.** Hezitzaileek haurrekin egiten duten lanaren berri emateko. Gelaren antolamenduari buruzko alderdiak azal ditzakegu bilera horretan (espazioa, materialak, etab.), baita adin horietako haurren ezaugarriak eta lortu nahi ditugun helburuak ere. Garrantzitsua da giroa elkarrekin gogoeta egiteko prestatzea, eta familiei adieraztea bai batzuek bai besteek elkarrengandik ikas dezakegula eta horrek aberastu egingo gaituela.

## Nola burutzen dugu?





### e. Beste elkarreragin eta/edo elkarlan batzuk kanpoko eragileekin

Eskura ditugun pertsonal baliabideak eta baliabide materialak kide guztien onerako erabiltzea da ongi antolatutako komunitate baten ezaugarri nagusia.

Haurreskolak Partzuergoa erakunde publikoa da, eta hezkuntza helburu argiak ditu, parte hartzen duen komunitateari zerbitzu bat emateko finkatuak.

Gure jarduna hobetzeko eta komunitateko baliabide guztiak aprobetxatzeko, komenigarria eta garrantzitsua da puntu komunak aurkitzea, itunak egitea eta lankidetzak ildoak sortzea gure komunitatea osatzen duten gainerako erakundeekin.

Gure lana horrela eskatzen duenean egokia da beste zerbitzuekin harremanak izatea eta koordinazio lanak egitea:

- Udala
- Ikastetxe publikoak
- Arreta goiztiarreko zerbitzuak
- Gizarte zerbitzuak.
- Osasun zerbitzuak.
- Etab.

### Nola burutzen dugu?



### 4.3.2. Espazioa, denbora eta taldeak

**Hezkuntza Printzipioak irizpide izango dira, berebiziko garrantzia dute eta**

Espazioaren, denboraren eta taldearen antolaketan nortasun, interes eta gaitasun guztiak hartu behar dira kontuan. Gauzak egin ditzaketela sentitu behar dute haurrek. Hori lortzeko, ditugun espazioetan aukerak eskaini behar dizkiegu, denbora modu orekatuan antolatzeaz gainera. Espazioaren antolaketak eta denboraren banaketak haur bakoitzaren eta talde guztiaren behaketa izan behar du oinarrian.



### a) Espazioak

Espazioa da bertan egiten denaren isla eta kalitatearen adierazlerik argienetakoa; beraz, espazioaren garrantzia azpimarratzekoa da. Bertan gertatzen dira hezkuntza ekintzak eta eguneroko bizipenak.

Espazio batean sartu eta horri begiratzen badiogu, informazio baliagarria eskainiko digu bertan zein historia bizi den jakiteko.

Haurreskolako espazio guztiek hausnarketa sakona eskatzen dute hezitzaile taldearen aldetik, haurrek denbora emango baitute espazio horietan. Beraz, leku goxoak izango dira, seguruak, erosoak, eta ongi pentsatutako altzariak, objektuak eta materialak izango dituzte, gure Hezkuntza Printzipioak eta helburuekin bat etorrira. Espazioen proposamenak, haurrari jardueretan parte hartzera gonbidatzeaz gain, haurren beharretara egokituko dira.

Mugitzeko, deskubritzeko, atsedean hartzeko, aztertzeko, sortzeko, esperimentatzeko... testuinguruak eskainiko zaizkie haurrei, pentsatzeko eta jarduteko premia bizi dezaten, hots, esperientziak bizitzeko gogoia piztuko dituzten guneak sortzeko.

**Hauek dira \_\_\_\_\_ haurreskolak dituen espazioak:**

- **Espazioen deskribapena eta argazkiak**
- **Nola egituratzen dira haurreskolaren espazioak?**
- **Espazio bakoitzaren funtzioa: helburua, zer ahalbidetzen dion haurrari...**

**OHARRA:** atal honetan espazioen inguruan jardungo gara. 4.3.3. puntuan, berriz, objektu eta materialen inguruan sakonduko da.



### b) Denbora

Eguneko denbora banatzeko, aintzat hartu behar dugu haur bakoitzak bere erritmo propioa duela garatzeko, heltzeko zein ikasteko, eta, ondorioz, erritmo berezi hori errespetatu behar dugu. Hau da, haur bakoitzaren beharretara egokitu behar dira haurreskolako denborak.

Denbora tarteen antolaketaren lehen xedea erritmo biologikoak (atsedena, higiena, elikadura) errespetatzea izango da. Haurreskolara sartzen den unetik irteten den arte, haurraren bizitza jarraitua izango da, eta, horretarako, eguneroko egoerak planifikatuko ditu hezitzaile taldeak.

Haurreskolan haurraren denborak errespetatuko ditugu, haurren jolasteko, esperimentatzeko, bizitzeko, hazteko, ikasteko, .... moduak osotasunean onartuta. Haurraren garapena eta erritmoa errespetatu ahal izateko, familien eta haurreskolaren arteko koordinazioari dagokionez malgutasunez jokatu du hezitzaile taldeak.

**Haurren erritmoak errespetatuz, nola egituratzen dugu eguna \_\_\_\_\_haurreskolan?**



### **c) Taldeak**

Haurreskolak Partzuergoak antolatzen du izena emateko garaian, haurreskola bakoitzean zenbat unitate egongo diren (hilabetetako haurrak, urte batekoak, taldekatzeak). Ondoren, haurreskola bakoitzak taldeak egiteko aldagai desberdinak hartu ditzake kontutan: hasiera data, adina, beharrak, garapena, ordutegiak... Planteamendua malgua izan daiteke. Beraz, haurreskola bakoitzaren izaera eta antolakuntza dela-eta taldeak osatzeko irizpide desberdinekin aurki gaitzke.

Osatutako taldeen jarraipena eta egonkortasuna bultzatzeko eta haurrari segurtasuna emateko, eta haurrak ekiteko gogoia eduki dezan, ahal den neurrian hezitzaile erreferenteak mantenduko dira ikasturte hasieratik amaieraraino.

**Nola antolatzen ditugu taldeak \_\_\_\_\_haurreskolan?**



### 4.3.3. Objektu eta materialen aukeraketa eta antolaketa

**Hezkuntza Printzipioak irizpide izango dira, berebiziko garrantzia dute eta**

Altzari, ekipamendu, objektu eta materialak aukeratu eta eskuratu baino lehen, kontuan hartuko ditugu zertarako nahi ditugun, nolakoak izan behar duten, nola aurkeztuko ditugun eta noiz berrituko ditugun. Oso garrantzitsua da hezitzaileek garapen motor/posturala, garapen manipulatioa, jolasaren garapena ..., nolakoak den ezagutzea, horrela jakingo du zeintzuk eskaini.

Behaketa lana ezinbestekoa da altzari, ekipamendu, objektu eta materialei buruzko kudeaketa egokia egiteko.

Haurren garapen eskemetan zenbait lotura egiten laguntzen dute altzari, ekipamendu, objektu eta materialek, eta aukera ematen dute, halaber, lehendabiziko kontzeptuak osatzeko eta espazioari eta errealitateari buruzko ideia zehatzak egiteko, baita informazioa jasotzeko ere.

Altzari, ekipamendu, objektu eta materialak oso garrantzitsuak dira gure hezkuntza lana egiteko, eta horiei buruz hausnartu behar da eskuratu baino lehen. Kontuan hartzeko:

- Umeen garapena eta interesa oinarri dituztenak
- Material anitzak
- Segurtasun neurriak aintzat dituztenak
- Objektu eta materialaren aurkezpena
- Gaitasunak bultzatzen dituztenak
- Ez sexistak
- ...

Hezkuntza proposamenek ikerketara eta esperimentera bultzatuko dute, eta gozatzeko eta ahalegintzeko aukera eman behar diete haurrei, giro lasaian. Nork bere burua ezagutzeko eta hazteko aukera eman behar dute, haurrei nortasun osasuntsua garatzen laguntzeko.



Haurreskolak Partzuergoak homologazio prozesu bat jarri zuen martxan, erosten diren jostailu, altzari, bulegoko altzariak segurtasun neurri batzuk bete ditzaten. Hala ere, horrek ez du esan nahi material guztia komertziala izan behar denik. Badaude, baita ere, guztiz egokiak diren eta erabili daitezkeen beste objektu eta material batzuk: kartoizko kutxak, esperimentaziozko objektu eta materialak (kateak, poteak, egurrezko koilarak, hondarra...). Hori bai, segurtasun biopsikosoziala bermatu behar dute eta uneoro modu egokian mantendu behar dira.

Batzuetan, objektua nola eta zerekin egin den izaten da kalitatearen erreferentzia, eta objektu interesgarria izateko ematen dituen aukerak ere izan daitezke kalitatearen adierazgarria. Esaterako, erabiltzen badugu kartoizko kutxa handi bat haurrak bertan sartzeko, kutxak egun gutxi iraungo du osorik, baina ematen dituen aukerak kalitateko objektu bihurtzen dute.

Ez da alferrik xahutu behar; aitzitik, zaindu egin behar da eta haren balioaz ohartu. Horretarako, ordea, ez da nahikoa arau jakin batzuk hitzez adieraztea, gauzak duintasunez erabiltzen ditugula ikusi behar dute haurrek, adibidez, panpina bati besoa erori bazaio, josi egingo dugu, haurrak aurrean ditugula; ipuin bateko orriak askatu badira, haien laguntzaz itsatsiko ditugu..., izan ere, zerbait hautsita dagoela ikusteak gehiago haustera gonbidatzen du.

Horretaz gain, inguru guztia prestatuko dugu, altzari, ekipamendu, objektu eta materialen aurkezpena zainduz, haurrarentzako erakargarria eta interesgarria izan dadin.

### **haurreskolako objektu eta materialak:**

- **Zer dago?**
- **Zein irizpide erabiltzen ditugu aurkezpenak egiterakoan?**

OHARRA: taula bat osatu daiteke, hainbat aspektu azalduta (helburua, zerrenda, erabilera...)





#### 4.3.4. Ebaluazioa eta haurraren jarraipena

**Hezkuntza Printzipioak irizpide izango dira, berebiziko garrantzia dute eta**

##### Ebaluazioa

Hezkuntza prozesuan zehar jarraipen bat egitean datza ebaluazioa, prozesu horren bilakaerari buruzko informazioa lortzeko (etengabeko ebaluazioa). Ebaluazio objektutzat hartuko dira Haur Hezkuntzako egunerokotasunean parte hartzen duten pertsona, antolaketa, baliabide eta dinamika guztiak. Horren bidez, esku hartzeak egokitu ditzakegu, ezarritako helburuen lorpenaren arabera. Taldeari eta pertsonari dagokienez, haur bakoitzaren eta taldearen jarraipena egin beharko da beste alderdiak ebaluatzeko.

- Hezkuntza ebaluazioa **erabilgarria** izango da
- Ebaluazioa **egingarria eta errealista** izango da.
- Kalitateko interbentzioak egiteko aukerak emango dizkigu.
- Ebaluazioa **parte hartzailea** izango da, hezkuntza prozesuan parte hartzen duten guztien artean adostua.
- Ebaluazioa **argi eta garbi zehaztu** behar da, horren bidez lortutako informazioa jakina, adostua, eztabaidatua, zehatza, objektiboa eta doia izan dadin.
- Ebaluazioa jarraitua izango da.
- Ikasturtean zehar egindako jarraipenak jakinaraziko digu hezitzaileen esku hartzeak, dinamikak eta erabilitako baliabideak egokiak izan diren, eta hurrengo ikasturterako hobekuntza proposamenak egiteko aukera emango digu. Halaber, haur bakoitzak zer-nolako heltze bilakaera orokorra izan duen, eta zer lortu duen.

Hezkuntza proiektuaren ebaluazioak zenbait alderdiri erreparatu beharko die, lehenetasunez:

- **Hezkuntza proiektua:** testuinguruaren analisiaren egokitasuna eta doitasuna; nortasun ikurren koherentzia; hezkuntza printzipioak; helburu orokorrak; antolaketa eredua; barne araudia; ebaluazio sistemaren eta ebaluazio prozesuaren egokitzapena; hezkuntza agintarien kanpoko ebaluazioa, aurrez haurreskolarekin adostua eta hitzartua; eta garrantzizkoak irizten diren beste alderdi batzuk.



- **Hezkuntza praktikari buruzko hausnarketa:** erabilitako baliabide metodologikoak, espazioen banaketa, altzariak, ekipamenduak, objektuak, materialak eta denborak, hezkuntza proposamenen eta helburuen arteko koherentzia, hezitzailearen rola...



- **Haurreskolaren antolaketa:** koordinazio bileren eraginkortasuna, lanen banaketa, hezitzaileen arteko harremanak, prestakuntza jarduerak, espazioen erabilera, giroa, familiekiko harremana...



### **Haurren garapen prozesuari buruzko jarraipena**

**Behaketa funtsezko elementua da haurren garapen prozesuari buruzko jarraipena egiteko. Hezkuntzako esku hartzeak, familiekiko harremanak, haurreskolako antolamendua eta funtzionamendu orokorra hobetzen laguntzen du. Behaketak planifikatzea eta sistematizatzea eskatzen ditu.**

- **Egokitzapen garaia**

Haurreskolak dira hurrek hezkuntza sistemaren barruan ezagutuko duten lehen zentroa. Hurrek ez dute haurreskola ezagutzen. Espazioak, objektuak,



materialak, denboraren banaketa eta, batik bat, pertsonak (haur eta hezitzaile) ezezagunak dira haientzat; hortaz, familiekin adostutako egokitzapen garai bat ezarriko da, haurrei egoera berrira egokitzen laguntzeko.

Familiaren eta haurreskolaren arteko harremana funtsezkoa da prozesu horretan. Bi horien arteko komunikazioaren eta haurren behaketa zuzenaren bidez, informazio aberatsa eta askotarikoa jasoko dugu garai horretan, eta informazio horretan oinarritu ahalko gara gure hezkuntza interbentzioa haur bakoitzaren premietara egoki dadin.

Familiak emango digun informazioa jasotzeko fitxa bat prest izango dugu. Fitxa horretan informazio baliagarria jasoko da: datu pertsonalak, senideei buruzko datuak, datu psikoebolutiboak, osasun egoera, ohiturak, errutinak, jarrerak, etxeko ohiturak, bitxikeriak etab.. Fitxa horrekin batera, familiekin burutuko den hasierako elkarrizketatik ere informazioa jasoko da.

Behaketa gida bat izango dugu, haurrek garai horretan egiten duten bilakaera modu sistematikoan jasotzeko. Garai horren iraupena haur bakoitzaren araberakoa izango da.

- **Nola antolatzen dugu \_\_\_\_\_haurreskolan egokitzapen prozesua? (irizpideak, hezitzaile taldearen antolaketa, behaketarako tresnak, denbora banaketak, espazioak, familiekin hartu-emanak...)**
- **Nola egiten ditu prozesu honen jarraipena eta balorazioa \_\_\_\_\_haurreskolak?**



### • **Garapen prozesua**

Garapen prozesuaren jarraipenak etengabea izan behar du, eta Haur Hezkuntzako lehen zikloko (0-3 urte) helburuetan adierazitako konpetentzia multzoari erreparatu behar dio.

Behaketa zuzena eta sistematikoa da haurraren jarraipen prozesuaren teknika nagusia, eta haurren gaitasunak garatzea izango du xede.



Haur guztiak ezberdinak dira eta haurrei lagun egitea eta hezte prozesuan (arloan afektiboan, sozialean eta kognitiboan) laguntzea da gure egiteko profesionala. Hori lortzeko, beharrezkoa da egunerokoa planifikatzea, eta plangintza horrek haur bakoitzaren izatetik abiatu behar du ezinbestez. Behaketaren bidez, jakingo dugu zein diren haurren gaitasunak, interesak eta nahiak, horiek guztiak aintzat hartuta gure esku-hartzeak horietara moldatuko baitira.

Garapen prozesuaren arlo guztien bilakaerari buruzko informazioa jaso behar dugu. Era berean, behaketak parte hartze didaktikoa zehazteko aukera emango du, hau da, prozesuaren fase desberdinetan, aldaketak egin, gaia birbideratu edo berraztertze aukera eman behar du.

Datu bilketa hori egiteko, hainbat tresna ditugu eskura:

- Bideo grabazioa.
- Idatziz jasotako datu bilketa: gelako koadernoak, agenda ibiltaria, hezitzaile bakoitzaren koadernoak, haurreskola bakoitzak erabiltzen dituen erregistro guztiak...

Hezitzaileek haurrari buruz jasotako informazioa familiei luzatuko die. Horretarako, haurrari buruzko jarraipen txostenak helaraziko zaizkie. Idatzizko txosten horiek ikasturtean zehar hirutan banatuko dira, baina idatzizko txostena osatzeko egin behar den behaketak etengabea izan behar du, eta hezkuntza prozesuaren parte izan. Txosten horrek haur bakoitzaren garapen prozesua deskribatuko du (betiere haur bakoitzaren erritmoa eta garapena kontutan hartuta eta errespetatuta).

Jarraipen txostenez gain, baditugu beste elementu batzuk oso garrantzitsuak direnak familiei informazioa helarazteko: eguneroko hartu-emanak (haurra ekartzean eta jasotzean ematen direnak), agenda ibiltaria (haurren egunerokoa idazten da: nola egon den, zertan jardun duen, otorduak, esfinterrak...), ikasturtean zehar sortu daitezkeen bilerak (orokorrak, gelakoak, bakarkakoak),...

Familiekiko lankidetzak eta koordinazioak sustatzeak hezkuntza interbentzioarekin koherentzia bermatzen lagunduko du eta haurren hezkuntza prozesua arrakastatsua izatea ahalbidetuko.

Komunikazio eta partaidetza bideak irekiko dira, bi alderdien arteko trukea eta aberastea bultzatzeko. Halaber, horietatik jaso ditzakegun datuek gure hezkuntza diseinua egokia den ala ez adieraz diezagukete.



\_\_\_\_\_ haurreskolan:

- **Haurraren informazioa jasotzeko erabiltzen ditugun irizpideak**
- **Nola egiten dugu haurraren jarraipena? Zein tresna erabiltzen ditugu?**
- **Noiz eta nola egiten dugu familia-haurreskola arteko informazio trukea?**





## 4.4. BIZITZA HAURRESKOLAN

**Hezkuntza Printzipioak irizpide izango dira, berebiziko garrantzia dute eta**

Haurreskolak Partzuergoa osatzen duen haurreskola bakoitzak du erantzukizuna bere Hezkuntza Proiektua osatzeko, bertan oinarri teorikoak, filosofia, metodologia, antolakuntza... agertuko direlarik, betiere Haur Hezkuntzako curriculumak, Haurreskolak Partzuergoak ezarritakoa, eta noski, 14 Hezkuntza Printzipioak kontutan hartuta:

1. **Garapena prozesu pertsonala da**, norberaren ezaugarri zein egoerak eta inguruneak baldintzatua
2. **Guztiok ezberdinak gara**. Haur bakoitzak bere erritmoa du eta erritmo hori errespetatua izango da.
3. Egunerokotasunean **hezkidetzan** heziko da. Aurreiritziak eta estereotipo baztertzailak kanpo geldituko dira.
4. **Ez dugu dena modu berean eta aldi berean barneratzen**. Garapen intelektualak, afektiboak eta sozialak prozesu horretan eragina izango dute. Haurraren garapena globala da eta alderdi guztiak batera eta elkarri lotuak eraikitzen dira.
5. Haurra, menpekotasun handia badu ere, gaitasunak dituen **izaki aktiboa da**.
6. **Bizitzako esperientziak eta** horiek sortzen dituzten **emozioak** garapenaren oinarri dira, eta pertsonaren osotasunari eragiten diote: arlo afektiboari, harremanei eta ezagutzei.
7. Hazteko eta ikasteko **onarpena, segurtasuna, konfiantza eta egonkortasuna** behar dira.
8. Erabiliko den hizkuntza **euskara** izango da, betiere haurren eta familien hizkuntza onartuta eta errespetatuta.
9. Hezitzaileen **esku hartzea koherentea** izango da, haurraren ongizatea lehenetsita:



- Hezitzaile taldearen esku hartzea koherentea izan dadin adostua eta bateratua izango da.
- Hezitzaile taldeak familiekin errespetuzko komunikazio eta harreman bideak eraikiko ditu.

10. **Hezitzailearen rola funtsezkoa da. Behatuz eta entzunez,** haur bakoitzaren ezagutzan sakonduko du hezitzaileak, haurrak ingurune fisikoarekiko eta sozialarekiko izan ditzakeen harremanak zainduz.

11. **Hezkuntza proposamenak irizpide psikopedagogikoetan oinarrituko dira.**

12. Hezkuntza proposamenek haurrek **mundua ikertzeko, ezagutzeko eta ulertzeko** duten **premia** nahiz haur bakoitzak dituen inizatiba eta interesak errespetatuko dituzte.

13. Haurren **garapen globala bermatzeko**, arlo motorrean nahiz intelektualean hazteko, askatasunez mugitzeko nahiz manipulaziorako eta esperimenezko **proposamen aberatsak eta doituak eskaini behar zaizkio.**

14. Hezkuntza proposamenak **iraunkorrak, etengabeak, askotarikoak eta haurren garapen uneari egokituak** izango dira.

Haurreskola guztietan hainbat jarduera, une... egoten dira, eta horietako batzuk egunean zehar behin baino gehiagotan egon daitezke:

- **Egokitzapen aldia**
- **Harrera/Agurra**
- **Otorduak**
- **Higienea**
- **Atsedena/Loa**
- **Jarduera autonomoa/jolasa**

Beste batzuk, aldiz, haurreskola bakoitzak erabakitakoak izaten dira (**aparteko jarduerak**): tokian tokiko adierazpen kulturalak, irteerak, tailerrak, motrizitatea...

Jarduera, une... horien inguruan gauza ugari daude adostu beharra, oinarrizko betebeharrak ondorengo taula honetan txertaturik daudela:

ALDAGAIA	OINARRIZKO BETEBEHARRAK
<b>HEZITZAILEAREN ROLA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Haurraren erritmoa errespetatuko dugu eta bere ondoan egongo gara.</li> <li>• Haur bakoitzak bere erritmoa eta garapena dauzka, eta hezitzaileek lasaitasuna, konfiantza eta segurtasuna eskainiko dugu.</li> <li>• Haurraren keinuei adi egongo gara bere beharrei erreparatzeko.</li> <li>• Haurra entzuteko prest egongo gara.</li> <li>• Hezitzaileok haurrarekin hitz egin behar dugu eta zer egingo dugun/egiten ari garen eta zer gertatuko den/gertatzen ari den adierazi behar diogu, bai aurretik bai une berean, hizkuntza egokia erabiliz.</li> <li>• Prozesu guztia behatuko dugu.</li> <li>• Laguntza eskainiko diogu behar/eskatzen duenari.</li> <li>• Ingurune guztia prestatuko dugu.</li> <li>• Familiarekin elkarrizketa, konfiantza eta adostasuna ahalbidetuko dugu.</li> <li>• Hezitzaile taldearen arteko komunikazioa, koherentzia... bultzatu eta ziurtatuko dugu.</li> </ul>
<b>FAMILIA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Familiekiko lankidetzeta eta koordinazioa ere garrantzitsua da, haiekin elkarlanean aritu behar baikara uneoro haurraren ongizatea bermatzeko. Horren oinarrian, komunikazioa, informazio trukaketa eta parte hartzea egongo dira.</li> <li>• Gure metodologiaren informazioa luzatuko diegu, bertan landuko ditugun helburuak jakin dezaten, baita etxeko eta haurreskolako elkarlana bultzatzeko ere.</li> <li>• Elkarrizketaren bidez, konfiantza eta adostasuna ahalbidetuko dugu.</li> <li>• Etengabe elkarlanean arituko gara familiekin, haurraren ongizatea bermatzeko, eta horretarako informazio trukaketa ezinbestekoa da. Informazio trukaketa horretarako hainbat bide erabiliko ditugu, hala nola hauek: eguneroko elkarrizketak, agenda ibiltaria, bakarkako elkarrizketak...</li> </ul>
<b>ESPAZIOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Beharrezko guztia izango dugu bertan.</li> <li>• Espazioa antolatzeke, momentu berean bertan egongo diren haur eta hezitzaileen kopurua kontuan hartuko da.</li> <li>• Segurtasun neurriak bete behar ditu.</li> <li>• Haurra seguru eta lasai senti dadin behar bezala prestatuta eta antolatuta egongo da. Horregatik, garrantzitsua da gune hori behar bezala antolatzea.</li> <li>• Haur bakoitzaren jarduera autonomia bermatzeko pentsatuta eta prestatuta egongo da.</li> </ul>

ALDAGAIA	OINARRIZKO BETEBEHARRAK
<b>DENBORA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Haurraren erritmoak, izateko erak eta garapen ebolutiboak errespetatuko ditugu.</li> <li>• Behar adina denbora hartuko dugu denok lasai eta gustura senti gaitzen.</li> <li>• Denbora haur bakoitzaren beharraren arabera izango da, bere ongizatea bermatuz uneoro.</li> </ul>
<b>MATERIALA (altzari, ekipamendu, objektu, tresnak...)</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Beharrezko materiala momentu oro eskura izango dugu.</li> <li>• Haurreskola bakoitzak altzariak, ekipamenduak, objektuak, tresnak... antolatuta, zaindu eta berrituko ditu.</li> <li>• Haurrek eskura izan aurretik, erabiltzen den materiala arriskurik gabekoa, segurua... dela ziurtatuko da.</li> <li>• Materialak segurtasun neurriak bete behar ditu.</li> </ul>
<b>BEHAKETA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hezitzaileak duen ezinbesteko baliabidea da behaketa.</li> <li>• Behaketa garrantzitsua da haurraren egunerokotasuna identifikatzeko, antzemateko, haurra ezagutzeko eta haurraren beharrak identifikatzeko.</li> <li>• Momentu guztiak behatuko ditu.</li> <li>• Garrantzitsua da hezitzaileek behaketa sakona egitea, batetik haurraren beharrei erantzun egokia emateko, eta, bestetik, haurra seguru eta lasai senti dadin.</li> <li>• Behaketa, hezitzailearentzat ezinbesteko baliabidea izanik, etengabekoa izango da, momentu oro eta haur guztiak kontuan hartuta egin beharrekoa.</li> <li>• Haur bakoitza gainbegiratu behar du, familiari transmititzeko eguneroko irteeretan, agenda ibiltarian, bakarkako elkarrizketetan...</li> <li>• Honen guztiaren inguruan, familietatik jasotzen den informazio trukaketa ezinbestekoa izango da.</li> <li>• Hezitzailearen lana eta prozesu guztia behatu, aztertu eta ebaluatu egingo dira.</li> </ul>



Ondorengo orrialdean agertzen diren taulak abiapuntutzat hartu behar dira. Haurrekola bakoitzari dagokio gai hauek eta beste batzuk bere Hezkuntza Proiektuan modu sakon, zehatz eta argian deskribatzea. Beste modu batean esanda, **PRAKTIKA KONTZIENTEAK** zehaztea.



## EGOKITZAPEN ALDIA

OINARRI TEORIKOA:

HELBURUAK (HEZITZAILEAK/HAURRAK):

ESPAZIOA:

DENBORA:

MATERIALA:

HEZITZAILEAREN ROLA:

PROZEDURA:

FAMILIA:

BEHAKETA:

EBALUAZIOA:

OHARRAK:

## HARRERA

OINARRI TEORIKOA:

HELBURUAK (HEZITZAILEAK/HAURRAK):

ESPAZIOA:

DENBORA:

MATERIALA:

HEZITZAILEAREN ROLA:

PROZEDURA:

FAMILIA:

BEHAKETA:

EBALUAZIOA:

OHARRAK:

## AGURRA

OINARRI TEORIKOA:

HELBURUAK (HEZITZAILEAK/HAURRAK):

ESPAZIOA:

DENBORA:

MATERIALA:

HEZITZAILEAREN ROLA:

PROZEDURA:

FAMILIA:

BEHAKETA:

EBALUAZIOA:

OHARRAK:

## OTORDUAK: GOSARIA

OINARRI TEORIKOA:

HELBURUAK (HEZITZAILEAK/HAURRAK):

ESPAZIOA:

DENBORA:

MATERIALA:

HEZITZAILEAREN ROLA:

PROZEDURA:

FAMILIA:

BEHAKETA:

EBALUAZIOA:

OHARRAK:

## **OTORDUAK: BAZKARIA**

OINARRI TEORIKOA:

HELBURUAK (HEZITZAILEAK/HAURRAK):

ESPAZIOA:

DENBORA:

MATERIALA:

HEZITZAILEAREN ROLA:

PROZEDURA:

FAMILIA:

BEHAKETA:

EBALUAZIOA:

OHARRAK:

## OTORDUAK: ASKARIA

OINARRI TEORIKOA:

HELBURUAK (HEZITZAILEAK/HAURRAK):

ESPAZIOA:

DENBORA:

MATERIALA:

HEZITZAILEAREN ROLA:

PROZEDURA:

FAMILIA:

BEHAKETA:

EBALUAZIOA:

OHARRAK:

## HIGIENEA

OINARRI TEORIKOA:

HELBURUAK (HEZITZAILEAK/HAURRAK):

ESPAZIOA:

DENBORA:

MATERIALA:

HEZITZAILEAREN ROLA:

PROZEDURA:

FAMILIA:

BEHAKETA:

EBALUAZIOA:

OHARRAK:

## ATSEDENA-LOA

OINARRI TEORIKOA:

HELBURUAK (HEZITZAILEAK/HAURRAK):

ESPAZIOA:

DENBORA:

MATERIALA:

HEZITZAILEAREN ROLA:

PROZEDURA:

FAMILIA:

BEHAKETA:

EBALUAZIOA:

OHARRAK:



## JARDUERA AUTONOMOA-JOLASA

OINARRI TEORIKOA:

HELBURUAK (HEZITZAILEAK/HAURRAK):

ESPAZIOA:

DENBORA:

MATERIALA:

HEZITZAILEAREN ROLA:

PROZEDURA:

FAMILIA:

BEHAKETA:

EBALUAZIOA:

OHARRAK:

**APARTEKO JARDUERA: .....**

OINARRI TEORIKOA:

HELBURUAK (HEZITZAILEAK/HAURRAK):

ESPAZIOA:

DENBORA:

MATERIALA:

HEZITZAILEAREN ROLA:

PROZEDURA:

FAMILIA:

BEHAKETA:

EBALUAZIOA:

OHARRAK:

**APARTEKO JARDUERA: .....**

OINARRI TEORIKOA:

HELBURUAK (HEZITZAILEAK/HAURRAK):

ESPAZIOA:

DENBORA:

MATERIALA:

HEZITZAILEAREN ROLA:

PROZEDURA:

FAMILIA:

BEHAKETA:

EBALUAZIOA:

OHARRAK:

**APARTEKO JARDUERA: .....**

OINARRI TEORIKOA:

HELBURUAK (HEZITZAILEAK/HAURRAK):

ESPAZIOA:

DENBORA:

MATERIALA:

HEZITZAILEAREN ROLA:

PROZEDURA:

FAMILIA:

BEHAKETA:

EBALUAZIOA:

OHARRAK:

**APARTEKO JARDUERA: .....**

OINARRI TEORIKOA:

HELBURUAK (HEZITZAILEAK/HAURRAK):

ESPAZIOA:

DENBORA:

MATERIALA:

HEZITZAILEAREN ROLA:

PROZEDURA:

FAMILIA:

BEHAKETA:

EBALUAZIOA:

OHARRAK:

**APARTEKO JARDUERA: .....**

OINARRI TEORIKOA:

HELBURUAK (HEZITZAILEAK/HAURRAK):

ESPAZIOA:

DENBORA:

MATERIALA:

HEZITZAILEAREN ROLA:

PROZEDURA:

FAMILIA:

BEHAKETA:

EBALUAZIOA:

OHARRAK:

